

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Culturren 2011ko programa asteburu honetan amaituko da, eta lau kontzertu eta hiru erakusketa egongo dira interes turistikoko guneetan

Lizarra, Erronkari, Lizaso eta Orreagan izango dira musika emanaldi horiek

Jueves, 25 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak antolatu duen Cultur 2011 programa asteburu honetan amaituko da, eta beste lau jarduera eskainiko dituzte Nafarroako gune turistikoeetan. Hortaz, ostiralean, abuztuaren 26an, Lizarrako Fray Diego Kultur Etxean jazz musikako kontzertua eskainiko du Jaff Trío taldeak.



Saxofonisten laukoteak datorren igandean, abuztuaren 28an, joko du Orgiko hariztian

Larunbatean, abuztuaren 27an, 13:00etan eta 18:30ean, Culturrek tenore nafarraren omenez antolatu dituen "Topaketak Gayarrerekin" programaren barruan, Daniel Gutiérrez (pianoa) eta David Echeverriak (tenorra) kontzertua eskainiko dute Erronkarin.

Azkenik, igandean, abuztuaren 28an, ganbera musikaren zaleek Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko saxofonisten laukotea entzun ahal izango dute Lizasoko Orgiko hariztian. Horrez gain, Orreagako Errege Kolegiata elizan antzinako musikako kontzertua emango dute, 13:00etan, Bouffons et troubadours taldekoek.

Bestalde, zabalik daude oraindik Agoizko Mikel Esparzaren, Los Arcosko Iruña Cormenzanaren eta Bertizko Jaurerriko Javier Suescunen erakusketak.

Cultur Nafarroako Gobernuak antolatzen duen programa da. Programaren barruan, ganbera musika, musika korala, jazz eta folk kontzertuak, pintura erakusketak, dantza ikuskizunak, herri-kirolen erakustaldiak eta artisautza erakusketak eskaintzen dira interes turistikoko berezia duten lekuetan bisitarien egonaldia atsegingarriagoa izan dadin.

JAFF Trío Iruñean bizi eta inprobisazioa gustuko duten musikarien taldea

da. Lau urtez klub, jai, emanaldi, eta abarretan jotzen ibili ondoren, hirukote klasiko akustiko gisa aurkeztu dira, pianoan, kontrabaxuan eta bateria-perkusioan. Haien erreperatorioko musika estiloak swing, jazz klasikoa, be-bop, musika arina, bossa-nova eta musika brasildarra dira, baita funky estiloa ere. Haienak diren konposizioek osatzen duten erreperatorioa ere badute, haien jatorri eta eragin anitzen ondorioz sorturikoa. Jon Uribetxebarriak, baterian, Antonio J. Romerok, kontrabaxuan, eta Francesco Casalik, pianoan, osatzen dute taldea.

Saxofonisten laukotea Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriokoa da, eta kontserbatorioko saxofonisten gelako ikasle gailenek osatzen dute: Eduardo Rubiok (saxofoi altua), Ana Garcíak (saxofoi tenorra) eta Eneko Anautek (saxofoi baritonoa) eta haien irakasle Aurora Vivesek (saxofoi sopranoa).

Taldea 2008an eratu zen saxofoiaren alderdi klasikoa sustatu eta zabaltzeko. Orain arte egin duten ibilbide laburrean, Nafarroako hainbat agertokitan jo dute askotariko erreperatorioa eskainiz, besteak beste, Singelée, Iturralde, Piazzolla, Pierné, Barber, Joplin eta Debussyren obrak.

Bouffons et trovadors taldeak *Destellos de luz ante la oscuridad*, Antso VII.a Nafarroakoa izeneko emanaldia eskainiko du. Ikuskizun dramatizatu horretan antzinako musika tresnak, kantua, antzerkia eta dantza batzen dira. Musikari dagokionez, Erdi Aroko eta Pizkundeko obren kontzertua eskainiko dute eta Nafarroako historiaren gertaera esanguratsuenetako bat kontatzen duten bitartean izango da. Gertaera horretako pertsonaiak Antso VII.a Nafarroakoa eta haren iloba Tibalt IV.a Xanpainako kondea dira.

Axun Ezkurrak (txirula eztea), Maitane Goñi aktoreak, Amaia Azkona sopranoak, Lixsania Fernándezek (biola), Peio Otanok (flautak), Peio Berasategik (Baxoia) eta Adela Martínek (klabezina) parte hartzen dute emanaldian.